

HURA ZEN DON MANUEL...

Miren Azkarate

Hura zen don Manuel, zu zara Juan Mari. Lelo hori hartu nuen gogoan duela 17 urte, 1988ko uztailaren 29an, Juan Mari Lekuonak bere Euskaltzaindiko sarrera-hitzaldia irakurri ondoren, zuk, aitabitxi gisa, eman zenion erantzunetik. Hamabost egun baino ez dira Baigorriin, zure sorterrian, Manuel Lekuona saria jaso duzula Eusko Ikaskuntzaren eskutik. Eta gogoan izan dituzu zure hitzetan osaba-ilobak: Manuel Lekuona, haren izena daraman saria hartzen baitzenuen, eta Juan Mari Lekuona, eta batarekin eta bestearekin izaniko harremana Euskaltzaindian.

«Hura zen don Manuel, zu zara Juan Mari»; lelo horren bidez uxatu nahi izan zenituen hasieratik euskaltzain zendu berriaren hutsartea betetzeko iloba hautatzean batzuek ikusi zuten nepotismoa: «osaba bide urratzaile izan balinbada, zuri esker xendra edo bidexka hori errege bide bilakatu da. Hura zen Don Manuel, zu aldiz Juan Mari» irakurri zenuen orduan.

Gaur Manuel Irujo saria hartzen duzu, zu Jean Haritschelhar izanik. Ez da, beraz, inolako arriskurik norbaitek nepotismoz jokatu dela uste izan dezan. Eta, hala ere, «plagio» salaketarik egingo ez didazulakoan, utz iezadazu nire hitzak ontzeko hari hau hartzen: hura zen Manuel Irujo, zu zara Jean Haritschelhar.

Herri guztiak ohoratu nahi izaten dituzte bizitzan zehar herri horren alde saiatu direnak; haien izena goraiatu, nor izan ziren irakatsi belaunaldi gazteei. Horrelakoetan, ohikoa izaten da gure artean pertsona horren izena daraman saria antolatzea, urtean behin bederen gizartea oroit dadin sariari izena eman zion gizon edo emakumearen eginbideez. *Irujo Etxea Elkartea* da Manuel Irujo Saria sortu zuena eta aurten bosgarren aldiz ematen duena. Eskerrak, euskaldunon izenean, egiten duzuen lanarengatik.

Aldi berean, saria hartzen duena ere ohoratu nahi izaten da, hari ere airtortu dagokion alorrean gizartearen, bere herritarren alde eginiko lana.

Ez da, ordea, baitezpadako saria hartzen duena, eta sariari izena eman diona alor berekoak izatea. Alabaina, molde batean baino gehiagotan duzue antza Manuel Irujok eta biok.

Hasteko, biok zarete nafarrak; nafar izanik, eta horretaz harro sentiturik, Euskal Herri osoari buruz aritu zaretenak.

Mutikotan pilotazalea zen Manuel Irujo. Hala aitortzen dio Eugenio Ibarzabali honek eginiko elkarrizketa liburuan:

Jugaba bien a pelota a mano. A pala no tan bien..., pero a mano jugaba bien (...) En futbol tampoco era bueno, pero jugaba. Era también músico. Para los diez años, conocía bastante bien la música. Tocaba el piano y la corneta, posteriormente el txistu. Sin embargo, era muy mal bailarín.

Nork ez du ezagutzen zure pilotazaletasuna? 1968az geroz Pilota Federazioan sartu zinen, 1970an *Pilota* aldizkaria sortu eta 1981ean *Pilotarien Biltzarreko* buru hautatu zintuzten.

Musikaren alorrean ere, ez dakit musika tresnarik jotzen duzun, baina kantuak izan dituzu ikergai sarri askotan.

Unibertsitate mailako ikasketak egin dituzue biok, unibertsitatera joatea hain ohikoa ez zen garaitan. Manuel Irujok Letretako ikasketak egin zituen lehenik, eta Zuzenbidea ondoren. Zuk ere letretako bidea hautatu zenuen, gaztelaniazko sailean hain zuzen ere.

Baina hura zen Manuel Irujo, zu zara Jean Haritschelhar.

Euskal kulturaren sustatzaile izan zarete biok. Manuel Irujok, unibertsitateko ikasketak amaitu eta Nafarroara joan bezain laster sortu zituen Euskal Etxeak, Iruñean lehenik, Lizarran ondoren. *La Voz de Navarra* egunkaria, *Napartarra* astekaria, *Izarra* kirol taldea, ikastola, futbol talde bat ere sortu zuen. 21 urteko mutil gaztea zen orduan.

Zu, Baionako Erakustokiko zuzendari izan zara urte luzez, *Bulletin du Musée Basque* berpiztuaz eta hango artxiboetara hainbat dokumentu eta liburu balios bilduaz; *Herria* astekarian gaur ere hor ari zara astero. Irakaskuntzaren munduan ere hor izan zara lehen lerroan *Ikas* erakundean eta *Seaskan*.

Euskal Herriko Unibertsitateak biok izendatu zaituzte Doctor Honoris Causa, 1982an bata, 1988an bestea.

Hala ere, hura zen Manuel Irujo, zu zara Jean Haritschelhar.

Biok zarete euskaldunak, Herri hau barru barrutik maite izan duzuenak; baina gogoia eta bihotza zabalik izan dituzue Espainiarentzat eta Frantziarentzat; eta, orenen gainetik, Europan sinetsi duzue. Hala aitortu zion Manuel Irujok Eugenio Ibarzabali:

Para que un vasco aspire a la realización de la vida vasca, de la vida nacional vasca, el problema no es un problema de separación política; porque si me dice: ¿quiere separarse de España?... le diría que yo tengo mucho interés en que el Estado Español se una a Europa, porque tengo interés en que Euskadi llegue a ser porción de Europa y de que Europa llegue hasta Gibraltar.

Europaren aldeko jarrera hori aitortu nahi izan zioten Manuel Irujori 1972an, europar mugimenduaren aldeko «Consejo Federal Peninsular» delakoaren ohorezko presidente izendatu zutenean.

Zuk, berriz, hitz hauek esan zenizkion Juan Mari Lekuonari haren sarre-
ra hitzaldian:

Lehenik nahi dizkizut eskerrak bihurtu aitabitxi gisa hautatu naizulakotz. Zertako ote? Beharbada, bere sortegunetik Euskaltzaindiak Iparraldeko eta Hegoaldeko kideak biltzen dituela ikusirik, nahi ukan duzu erakutsi Europa batu bati buruz goatzilarik, ez duela mugak deus ikustekorik gure harremanetan.

Bordeleko lehen urteetatik izan zenuen jarrera bera, hala nola, 1973ko maiatzean Bordelera gonbidatu zenituenean hizkuntzalari, legelari, historialari eta hainbat unibertsitario guztiek elkarrekin azter zezaten zer ote zen *Euskal Herria 1789-1850* iraganaldian. Baionako Erakustokiak ere maiz hartu ditu alde bateko eta besteko euskaldunak; batik bat gogora ekarri nahi ditut 1971 eta 1912ko Kultura Asteak, ondotik sortuko zen *Udako Euskal Unibertsitatearen* lehen hazitzat har daitezkeenak. Eta Frantziako Unibertsitateen Goiko Kontseiluan 1984an, *Eskualdeetako Kultura eta Hizkuntzen* 73. sail berria Portu zelarrik, burulehen hautatu zintuzten.

Kulturaniztasuna eta hizkuntzaniztasuna, herrien Europa bultzatu nahian, hura izan zen Manuel Irujo, zu zara Jean Haritschelhar.

Euskal Herriaren alde, politikagintzari eman zizkion bizitzako urte gehienak Manuel Irujok. Zure sorterriko auzapez izan zara 9 urtez. Baina, batez ere, irakasle, ikertzaile, euskaltzain, euskararen langile. «Euskal Hizkuntza eta Literaturako irakasle» Bordeleko Unibertsitatean, eskolak euskaraz ematen hasi zinen, beste hizkuntzentzat irakasleak egiten hasi ziren bezala.

Euskaltzaindiak 1995ean Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* argitaratu zuenean, hauxe idatzi zenuen hitzaurrean:

Orduz gero mintzaira idatzia jalgi daiteke Etxepareren oihu famatuari jarraikiz: kanpora..., plazara..., mundura..., mundu guzira... eta azkenik munduko mintzaira idatzien arteko dantzara.

Kontrapas» delakoaren oihuak badauka «Sautrela»-n bere oihartzuna, manu gisa emana: «Heuscaldun den guïçon oroc alcha beça buruya.

Laurehun eta berrogeita hamar urteren burlan hauxe da daukagun hizkuntzarekiko ametsa: gal beza ahalkea eta beldurra, izan dadila, idazleei esker, ausart, entregu, bitore eta beste hizkuntzak bezain aberats eta konplitu.

Idazle izanik ala ez, beldurrik gabe, orain ere «euskaldun den gizon orok altxa beza burua».

Zinez, Jean, asko egin duzu amets hori egia bihur dadin.

Haatik, bide luze horretan, egindako lan eta ahalegin guztietan, ez zara bakarrik ibili. Colette emaztea izan duzu ondean; hark eman dizu nahitaezko den sosegua etxetik kanpo hainbeste ordu emateko. Horregatik, gaurko omenaldia badagokio zure emazteari ere. Nihaurk ere badakit zenbat zor diodan ondoan dudan bikoteari. Eskerrak, beraz, Colette, bihotzez, zuri.

Hitz batean, biok izan zarete euskaltzale, kultura sustatzaile, herri gizon (eta emazte), «euskaldun den gizon eta emakume orok» burua altxa dezan eta Europan leku duina izan dezan lan egin duzuenak.

Hura zen Manuel Irujo, zu zara Jean Haritschelhar. Hark bezala, 90 urte bederen har ditzazula, eta hemen gaudenok kondari izan gaitzazula.